



Bizilagun horiek:

Lerro hauen bidez jakinarazi nahi dizuet Erroibar, Auritz eta Orreagako Udalek **Erro-Roncesvalles Parke Mikologikoa** martxan jartzeko lanean ari garela. Proiektua gauzatzeko lizitazioa egin da eta Garrapo S.L. enpresari adjudikatu zaio, 5 hilabeteetarako.

Hona hemen PROIEKTUAREN HELBURUAK:

a) **GUNE MIKOLOGIKOA IREKI ETA MARTXAN JARTZEA BIZKARRETA-GERENDIAINEN (Lixibategi zaharrea, momentuz obretan)** bertan helburu argia duten bi jarduera egiteko:

- **INFORMAZIO MIKOLOGIKOKO GUNEA martxan jartzea**, baliabide mikologikoa, haren aprobetxamenduak sortzen dituen arazoak eta Erro-Roncesvalles Parke Mikologikoaren proiektua ezagutzera eman eta gaiarekiko sentsibilizazioa sustatzeko.
- **ESKUALDEKO MIKOLOGI-BEHATOKIA martxan jartzea**, interes sozioekonomikoa duten zizen produkzioa eta biltzaileen kopurua ezagutzeko. Modu horretan egoeraren diagnostikoa egingen da, baliabide mikologikoa balioztatu eta mantentzeko politika eraginkorrak sortu ahal izateko.

b) **BERTAKO ENPLEGUA MANTENTZEA**, epe motzean ingurumen zerbitzuen alorreko lanpostuak mantenduko dira eskualdean. Proiektu honen bidez, epe ertainean, gutxienez lanpostu finko zuzen bat sortuko da.

c) **PRODUKTU MIKOLOGIKOEN BILKETA ANTOLATU ETA ARAUTZEA**

Bost hilabeteko epean proiektua ezagutzera eman eta sustatzeko hainbat jarduera egingen dira:

Zer	Noiz
Proiektuaren aurkezpen-jardunaldia	Urriaren 30ean, asteartean
Bisita gidatuak	Urriaren 6an, 13an eta 30ean eta azaroaren 1ean
Aholkularitza mikologikoak (Sorogainen, informazio gunea ireki arte)	Urriaren 6an, 12an, 13an, 14an, 21ean eta azaroaren 17an
Bukaerako ekitaldia	Azaroaren 17an

Komunikazio ekintzak:

- ✓ Parkeko gida-mapa
- ✓ Parkeko web
- ✓ Proiektuaren logotipoa
- ✓ Sustapen bideoa
- ✓ Proiektuaren azalpena
- ✓ Bizilagunei eta biltzaileei inkestak egitea haien iritzia ezagutzeko
- ✓ Turismo alorreko inkestak

Jarraipen ekintzak:

- ✓ Ekoizpenaren jarraipena, oihanetako ekoizpena ezagutzeko
- ✓ Biltzaile kopuruaren ikerketa, ibilgailu kopuruaren eta parkeko mendipistetan dabilzan biltzaile kopuruaren gaineko informazioa eskuratzeko.

Jarduera guztietan parte hartzera animatzen zaituztegu, eta, noski, gonbidatuak zaudete, anitz gozatuko duzuelakoan baikaude.

Agur bero bat,

Enrique Garralda Erro



Ayuntamiento del Valle de Erro
Erroibarko Udala



Ayuntamiento de Aritz/Burgueto
Aurizko Udala



Ayuntamiento de Orreaga/Roncesvalles
Orreagako Udala



FONDO EUROPEO AGRICOLA DE DESARROLLO RURAL
EUROPA INVIERTA EN LAS ZONAS RURALES

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra



LEADER



cederna garalur

El proyecto del "Parque Micológico Erro-Roncesvalles" promovido por el Ayuntamiento del Valle de Erro cuenta con la ayuda del Programa de Desarrollo Rural 2014-2020 Montaña de Navarra financiado por el FEADER (UE) y Gobierno de Navarra y gestionado por Cederna-Garalur.

"Erro-Roncesvalles Parke Mikologikoa" Erroibarko Udalak sustatu du eta Nafarroako Mendialdea 2014-2020 Landa Garapeneko Programaren laguntza jaso du; programa hori FEADERrek (EB) eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen dute eta Cederna-Garalurrek kudeatzen du.